

## EGUESIBARKO KIROL-SARIAK ARAUTZEKO OINARRIAK 2023

Kirol Saria urtero ematen den saria da, kirol-lehiaketen esparruan Eguesibarko pertsona fisiko edo juridikoen kirol-jarduera nabarmenak edo kirol-lorpenak aitortzen dituenak.

### 1.-HAUTAGAITZAK

a) Eguesibarko edozein kirol-klubek eta ibarren erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek aurkeztu ahal izango dituzte 2023ko kirol-sarietarako hautagaitzak, udalaren webguneko formularioaren bidez.

b) Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

-Kategoria bakoitzeko hautagaitza bakarra proposatu ahal izango da.

-Kirol-klubek ezin izango dituzte haien klubeko bi hautagaitza propio baino gehiago proposatu, dauden kategoria guztietarako.

c) Hautagaitzak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 31n amaituko da.

### 2.- MODALITATEAK

#### 1.- Eguesibarko emakumezko kirolaririk onena.

Xedea: 2023an estatu mailan zein nazioarte mailan gehien nabarmendu den Eguesibarko emakumezko kirolaria saritzea.

Baldintzak:

A) Bi irizpideetako bat betetzea

- Eguesibarren erroldatuta egotea bi urtez etenik gabe, aurkezpen egunetik hasita (2021/11/01a baino lehenagoko erroldatze-data)
- Federazio-lizentzia izatea, gutxienez 4 denboralditan, Eguesibarren egoitza duen klub baten bitartez (2019-2020 denboraldia)

B) Gaur egun dagokion kirol-federazioaren kirol-lizentzia izatea

C) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana

D) Postu hauetakoren bat lortu izana:

- Nafarroako txapelduna.
- Espainiako Txapelketan lehen, bigarren edo hirugarren postua eskuratu izana.
- Europako Txapelketan parte-hartu izana.
- Munduko Txapelketan parte-hartu izana.

#### 2.- Eguesibarko gizonezko kirolaririk onena.

Xedea: 2023an estatu mailan zein nazioarte mailan gehien nabarmendu den Eguesibarko gizonezko kirolaria saritzea.

Baldintzak:

B) Bi irizpideetako bat betetzea


- Eguesibarren erroldatuta egotea bi urtez etenik gabe, aurkezpen egunetik hasita (2021/11/01a baino lehenagoko erroldatze-data)
- Federazio-lizentzia izatea, gutxienez 4 denboralditan, Eguesibarren egoitza duen klub baten bitartez (2019-2020 denboraldia)

B) Gaur egun dagokion kirol-federazioaren kirol-lizentzia izatea

C) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana

D) Postu hauetakoren bat lortu izana:

- Nafarroako txapelduna.
- Espainiako Txapelketan lehen, bigarren edo hirugarren postua eskuratu izana.



- Europako Txapelketan parte-hartu izana.
- Munduko Txapelketan parte-hartu izana.

### **3.-Eguesibarko Kirol Talderik onena.**

Xedea: 2023an estatu mailan zein nazioarte mailan gehien nabarmendu den Eguesibarko kirol-taldea saritzea.

Baldintzak:

- A) Kirol-taldeak federazio-lizentzia izatea Eguesibarren egoitza duen klub baten bitartez, eta egoitza Eguesibarren izatea gutxienez 4 denboraldiz (2019-2020 denboraldia).
- B) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana.

### **4. Eguesibarko Kirol Teknikaririk onena.**

Xedea: 2023an estatu mailan zein nazioarte mailan gehien nabarmendu diren Eguesibarko kirolari edo taldeen klubetako entrenatzailea saritzea.

Baldintzak:

- A) Gutxienez azken bi denboraldietan jarraian Eguesibarren egoitza duten klubetako taldeak entrenatu izana (2021-2022 denboraldia).
- B) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana

### **5 –Eguesibarko Kirol Buruzagitarik onena.**

Xedea: Eguesibarko Kluben Zuzendaritza Batzordeko kidea saritzea, baldin eta klubaren funtzionamenduan hobekuntzak egitea, babesleak eskuratzea, Ibarrean bere kirol-modalitatea indartzea etab. lortu badute.

Baldintzak:

- A) Eguesibarko klub bateko Zuzendaritza batzordeko kide izatea, gutxienez azken bi denboraldietan jarraian (2021-2022 denboraldia).
- B) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana

### **6.-Eguesibarko Kirol Klub onena.**

Xedea: 2022an estatu zein nazioarte testuinguruan kirol-mailan nabarmendu diren Eguesibarko talde edo kirolarien kluba saritzea, edo bere kirol-modalitatea zabaltzeko edo kirolaren balio positiboak sustatzeko ekintzengatik nabarmendu den kluba saritzea.

Baldintzak:

- A) Gutxienez lau denboraldi jarraian (2019-2020 denboraldia) edo sortu zenetik egoitza Eguesibarren eduki izana.
- B) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana

### **7.- Kirolean berdintasuna sustatzen duen kirolaririk, talderik, erakunderik onena.**


Xedea: 2023an emakumeek kirol-arloan bizi duten desberdintasun egoera zuzentzeko lan onena egin duten Eguesibarko kirolariak edo kirol-klubak saritzea.

Baldintzak:

- A) Hiru irizpideetako bat betetzea
  - Kirolaria: Eguesibarren erroldatuta egotea bi urtez etenik gabe, aurkezpen egunetik hasita (2021/11/01a baino lehenagoko erroldatze-data)
  - Kirol-taldea: Egoitza Eguesibarren duen klub batengandik federazio-lizentzia izatea eta honek egoitza Eguesibarren edukitzea gutxienez azken 4 denboralditan (2019-2020 denboraldia).
  - Kluba: Gutxienez lau denboraldi jarraian (2019-2020 denboraldia) edo sortu zenetik egoitza Eguesibarren eduki izana.
- B) Azken lau urteetan sari hau jaso ez izana.

### **8.- Eguesibarko kirol-ibilbiderik onena.**

Xedea: Eskualde eta estatu mailan garrantzi handiko kirol-ibilbidea izan duen eta gaur egun jardunean ez dagoen Eguesibarko kirolaria saritzea.



#### Baldintzak:

A) Eguesibarren erroldatuta egotea bi urtez etenik gabe, aurkezpen egunetik hasita (2021/11/01a baino lehenagoko erroldatze-data)

B) Sari hau jaso ez izana

D) Postu hauetakoren bat lortu izana:

- Nafarroako txapelduna.
- Espainiako Txapelketan lehen, bigarren edo hirugarren postua eskuratu izana.
- Europako Txapelketan parte-hartu izana.
- Munduko Txapelketan parte-hartu izana.

#### 3.-HAUTAGAITZEN ZEHAZTAPENA

Partaidetza prozesu bat irekiko da, bitarteko elektronikoen bidez, eta Eguesibarren erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak eta kirol-klubek sarien modalitateetarako izendapenak proposatu ahal izango dituzte, ezarritako epean.

Epealdi hori amaituta, proposamenen balorazio teknikoa egingo da (kirol eta berdintasun arloak), eta kirol zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez ezarriko dira hautagaitzak. Gero herri-bozketaren fasea hasiko da

Sariak eman gabe utzi ahal izango dira, egoki iritzitako modalitatean edo modalitateetan, baldin eta proposatutako hautagaitzak(ek) ez baditu saria lortzeko behar beste merezimendu.

Aipamen bereziak ematea proposatu ahal izango da.

#### 4.- HAUTAGAITZAK BOZKATZEKO PARTE-HARTZE PROZESUA

Herri-bozketan, bitarteko elektronikoen bidez egiteko parte-hartze prozesu bat irekiko da, eta horren bidez, gutxienez 15 egunez, Eguesibarren erroldatutako 16 urtetik gorakoek sari-mota desberdinen izendapenak bozkatu ahal izango dituzte.

#### 5.- KIROL SARIEN EBAZPENA

Kirol sariak, Eguesibarko Kirol Zinegotzi Ordezkariaren Ebazpen bidez emango dira, Partaidetza prozesuaren bidez lortutako emaitzak kontutan hartuta.

#### 6.- SARIAK

Sariak, plaka edo oroigarria izango dira. Saritutako pertsonak eta erakundeek, sari-banaketako ekitaldira joateko eta horren harira haien irudia zabaltzeko konpromisoa hartu beharko dute.